

Eta Iluntziko bakian
::orbaitek dauai kantari:
«Dana emon blaé yako
mate dan azkatasunari»

(Lauaxeta: "ARRATS-BERAN",
Mendigoxaliarena; Bilbo.)

1935

αἶνοπαθῆ πατρίδ' ἐπόφομαι

(Anakreon)

ION GOTZON ETXEBARRIA

GREZIA - KO

OLERKARI LIRIKO

ZAHARRAK

ὑπέρ τῆς σωτηρίας
τῆς πατρίδος

JON GOTZON ETXEBARRIA

GREZIA - KO

OLERKARI LIRIKO

ZAHARRAK

ὑπέρ τῆς σωτηρίας
τῆς πατρίδος

liburu-sorta

GERNIKA



© Jon Gotzon Etxebarria

Legezko Gordailua: BI - 264 - 89

LANKOPI-Colón de Larreategi, 16-BILBO

Πολλὰ φεύδονται ᾠδοί (Solon)

Grezia zaharreko, eta Grezia zaharraren, olerkari liriko batzu dakartzat hurrengo orrietan, grekoz eta euskaraz. Ez dira ezagunenetarikoak, behar bada. Entzuterik handiena lortutakoak ale berezietan ateratzekotan nago: Anakreon (honez gero, 3. zenbakian aterea, Εἰς τὴν ἐλευθερίαν τῆς πατρίδος sortan, hain zuzen ere); ondoren Sapho eta Pindaro datorkez, arkaikoen artekoak aipatzearren.

Garai hartako poesigintzaren zer-nolakotasunak aztertzeke baduzu liburu sakon-ederrik, horren egarri bazara. Nire aldetik, irakurri-ahala bururatu zaizkidan oharkizun batzu soilik: jainkoenganako ustea, gertabeharraren aurrean eramapena, heriotzari erdi beldurra erdi errespetua, hildakoen mundua biziengandiko ekintzetatik berezi-nahia, eta edertasunari atxikimendu bortitza dira benetan irakurgarriak. Edertasuna haienezako zer den? Argi ageri da euren bertsoetan: ederra bizitza

bera da bere osotasunean:maitasuna,gorputz gozagarriak,ardoa,loreak,Izadiaren zoragarria;horixe bizitza bera da ederrena.Ohartuko zarenez,hurbi-
len dituzten gauzetatik hartzen dute poesi gai-
a eta gauzotara bihurtzen,xalotasun osoz.Har i-
tzazu gogo-gozagarri eta bihotz-pozgarri bezala.
Hitz zuhurrak ere badituzte gaurko gizonentzat.
Horietariko batzu,ni atsotitz itxuraz itzultzen
saiatu naiz:"Gizona hil zedin,gizonengandiko be-
giramena desegin",adibidez.

Oso gitxitan,textoan erabilitako berba baten ba-
riantea idatzi dut,euphoniaz edo nire belarriari
atsegin ematearren,irakurri-ahala soinu hori on-
gien belarrietaratzen zitzaidalako:handi/haUndi,
burruka/bOrrOka edo horrelako bat edo beste.Hor-
ixe da itzultzean irakurlearengan pentsatu beha-
rrean neuregan pentsatuz egin dudan bekatu baka-
rra.Beharbada,itzulpen-lan lehorraren erdian,o-
hartzeke,adimen-gozagarri ezerez horren sareetan
jausi naiz.Zuk irakurri ondoen sartzen zaizuna
eta Kitto.

Olerkari bakoitzari sarrera hitz batzu ipini diz-

Kiot,ezinbestezkoak.Bizi zireneko urteak,batzuet-
an,gitxi gorabeherakoak dituzu,antxina antxinako
pertsoneietan sarri gertatzen denez.

Jon Gotzon Etxebarria
GERNIKA

1989.ko otsailaren 6an.

GREKOZKO EDIZIO BATZU

Ernestus Diehl, *Anthologia lyrica Graeca, fasc.1:*

Poetae elegiaci, Leipzig: Teubner, 1954.

Idem auctor, *Anthologia lyrica Graeca, fasc.3:*

Iamborum scriptores, Leipzig: Teubner, 1954.

D.L. Page, *Poetae melici Graeci*, Oxford: Clarend-

on Press, 1962.

GREZIA - KO

OLERKARI LIRIKO

ZAHARRAK

TIRTEO
(640 K.a.)

Mileto-koa edo, Espartarrak auzokoen burrukan adoretu zituen.

μυθεῖσθαι τε τὰ καλά καὶ ἔρδειν πάντα δίκαια
μηδέ τι βουλευεῖν τῆιδε πόλει <σκολιόν>

(3a D)

Mintzatu gauza ederrak eta egin egoki dena; hiri honi, berriz, ezer okerrik ez aipa.

MIMNERMO
(630 K.a.)

Kolophon-ekoa, txirularia. Bere eresien liburuari maitearen izena jarri zion: Nanno. Gaztetasuna eta maitasuna ditu kantagai nagusi; bioi esker zaigu eder bizitza eta.

ἄλλ' ἐχθρὸς μὲν ταισὶν, ἀτίμαστος δὲ γυναιξίν·
οὕτως ἀργαλέον γῆρας ἔθηκε θεός.

(1 D)

Gazteentzat gorrotagarri, andrazkoentzat laidogarrri; horren neketsua egin bait du jainkoak zahartzaroa.

μίνυθα δὲ γίγνεται ἥβης
καρπός, ὅσον τ' ἐπὶ γῆν κίδναται ἥελιος.

(2 D)

Epe laburreko da gaztaroko fruitua, eguzkia lurgain isurtzen den bitartekoa.

οὐ δέ τις ἔστιν
ἀνθρώπων, ὦι Ζεὺς μὴ κακὰ πολλὰ διδοῖ.

(2 D)

Ez dago gizonik Zeus-ek ainitz neke ematen ez di-onik.

τὸ τρίν ἐὼν κάλλιστος, ἐπὴν παραμείψεται ὦρη,
οὐδὲ πατήρ παισὶν τίμιος οὔτε φίλος.

(3 D)

Lehen ederrena izanda ere, behin adina aldatuz gero, aita bera ere ez zaie umeei atsegin eta kuttun

Τιθωνῶι μὲν ἔδωκεν ἔχειν κακὸν ἄφθιτον ὁ Ζεὺς
γῆρας, ὃ καὶ θανάτου ῥίγιον ἀργαλέου.

(4 D)

Titon-i Zeus-ek amaigabeko nekea eman zion, zahartzaroa, heriotza ikaragarria baino latzagoa dena.

ἀλλ' ὀλιγοχρόνιον γίνεται ὡσπερ ὄναρ
ἦβη τιμήσσα· τὸ δ' ἀργαλέον καὶ ἄμορφον
γῆρας ὑπὲρ κεφαλῆς αὐτίχ' ὑπερκρέματαί,

(5 D)

Oso gitxi dirau gaztaro bikainak, amets baten antzera, eta zahartzaro itxuragabe eta gogorra behingoan dugu buru gainean zintzilik.

τὴν σαυτοῦ φρένα τέρπε· δυσηλεγέων δὲ πολιτέων
ἄλλος τίς σε κακῶς, ἄλλος ἄμεινον ἐρεῖ.

(7 D)

Lasaitu zeure gogoa: hiritar burutxarrekoak, bata gaizki, bestea ongi arituko dira zutaz.

SOLON
(600 K.a.)

Eresi trinko eta adoretzuen egilea; olerkia politikaren eta herri-hezkuntzaren zerbitzuan ipini zuen. Ondorengoek zazpi jakitunen artekotzat hartu zuten, hau da, hitzetan eta sentipenetan herriarentzat eredugarria. Platon-ek miresten zuen olerkaria, philosophoa eta politikaria batera zelako.

ὄλβον μοι πρὸς θεῶν μακάρων δότε καὶ πρὸς ἀπάντων
ἀνθρώπων αἰεὶ δόξαν ἔχειν ἀγαθῆν

(1 D)

Jainko zorionekoei buruz emaidazue bake ona eta gizon guztiei buruz izen onaren jabe izatea.

χρήματα δ' ἰμείρω μὲν ἔχειν, ἀδίκως δὲ πεπᾶσθαι
 οὐκ ἐθέλω· πάντως ὕστερον ἦλθε δίκη.

(1 D)

Ondasunak, bai, nahi ditut; zuzenki ez bada ez, ordea: azkenean nola edo hala zuzentasuna gailentzen da.

εἰδὲ δ' αὖθις αὐτὸς δόξαν ἕκαστος ἔχει,
(1 D)

Bakoitzak eritzi ederra du bere buruagatik.

Μοῖρα δέ τοι θνητοῖσι κακὸν φέρει ἡδὲ καὶ ἐσθλόν,

(1 D)

Patuak bidaltzen dizkie gizonei gaizkia eta baita ona ere.

πλούτου δ' οὐδὲν τέρμα πεφασμένον ἀνδράσι κεῖται

(1 D)

Aberaskien gurari hondogabea gizonek.

Εὐνομίη δ' εὐκοσμία καὶ ἄρτια πάντ' ἀποφαίνει

(3 D)

Zuzentasunak dena egokiro atontzen.

δῆμος δ' ὦδ' ἂν ἄριστα σὺν ἡγεμόνεσσιν ἔποιτο,
μήτε λῆαν ἀνεθείς μήτε βιαζόμενος

(5 D)

Ez lar aske, ez estu denean, orduantxe ondoen herria agintariekin.

οὐδ' ἂν ἄποινα διδοὺς θάνατον φύγοι οὐδέ βαρείας
 νούσους οὐδέ κακὸν γῆρας ἐπερχόμενον.

(14 D)

Ordainaren truke ezin alden du heriotza, ez eritas-
 un larria, ezta zahartzaro hurbila ere.

οὐδέ μάκαρ οὐδεις πέλεται βροτός, ἀλλὰ πόνηροι
 πάντες, ὅσους θνητοὺς ἥελιος καθορᾷ.

(15 D)

Ez dago gizon zoriontsurik, aitzitik eguzkipeko
 hilkor guztiak preminetan.

πάντηι δ' ἀθανάτων ἀφανῆς νόος ἀνθρώποισιν.

(17 D)

Hilezkorren gogoia arras ezkutua gizonentzat.

πολλὰ ψεύδονται ἄοιδοί.

(21 D)

Asmakeria asko olerkariek.

γηράσκω δ' αἰεὶ πολλὰ διδασκόμενος.

(22 D)

Zahartuz noa etengabe ainitz gauza ikasiz.



XENOPHANES
(530 k.a.)

Kolophon-eko philosopho honen eresi bi eta beste olerki-zatitxo batzuz gelditzen zaizkigu.

θεῶν <δὲ> προμηθεῖν αἰὲν ἔχειν ἀγαθόν.

(1 D)

Betiere on da jainkoekiko ardura.

ῥώμης γὰρ ἀμείνων
ἀνδρῶν ἢ δ' ἵππων ἡμετέρη σοφίη.
ἀλλ' εἰκῆι μάλα τοῦτο νομίζεται, οὐ δὲ δίκαιον
προκρίνειν ῥώμην τῆς ἀγαθῆς σοφίης.
οὔτε γὰρ εἰ πύκτης ἀγαθὸς λαοῖσι μετεῖη
οὔτ' εἰ πενταθλεῖν οὔτε παλαισμοσύνην,
οὔδὲ μὲν εἰ ταχυτῆτι ποδῶν, τόπερ ἐστὶ πρότιμον,
ῥώμης ὅσος ἀνδρῶν ἔργ' ἐν ἀγῶνι πέλει,
τούνεκεν ἂν δὴ μᾶλλον ἐν εὐνομίῃ πόλις εἴη·
σμικρὸν δ' ἂν τι πόλει χάρμα γένοιτ' ἐπὶ τῶι,
εἴ τις ἀεθλεύων νικῶι Πίσασο παρ' ὄχθας·
οὐ γὰρ πιαίνει ταῦτα μυχοῦς πόλιος.

(2 D)

Ene jakituria gizonen edo zaldien indarra baino hobeagoa da. Hortaz hauke uste izaten da, ez dela egoki indarra jakintza onaren gainera ipintzea. Herrian borrokari on bat badago pentatlonean edo borrokan edo oin-azkar dena, horixe bai ederretsi-a, giza adorea jokoetan ageri bait da, horregatik besterik gabe hiria ez dago hobeki zaindua. Ez du pozaldi handirik izango hiriak atletaren batek Pisa-ren ertzetan garaipena lortzen badu. Horrek ez bait ditu herriko bazterrak betetzen.

ARKILOKO
(650 K.a.)

Beharrizanak bultzaturik Tassos uhartera joan zen Paros bere sorterritik. Gudu-aldi batzutan parte hartu eta azkenean Naxos-en aurkako ekitaldian hil zen.

Bere buruarekikoak sarri ageri dira bere olerkietan. Antxinakoez poeta handitzat zedukaten. Eguzki-eclipse batek Jupiter ahalguztidunaren handitasuna mirestera eramane zuen, sinpleziaz.

Κήδεα μὲν στονόεντα, Περικλέες, οὔτε τις ἀστῶν
μεμφόμενος θαλίης τέρψεται οὐδὲ πόλις·
τοίους γὰρ κατὰ κῦμα πολυφλοίσβοιο θαλάσσης
ἔκλυσεν οἰδαλέους δ' ἀμφ' ὀδύνησ' ἔχομεν
πνεύμονας. ἀλλὰ θεοὶ γὰρ ἀνηκέστοισι κακοῖσιν, 5
ὦ φίλ', ἐπὶ κρατερὴν τλημοσύνην ἔθεσαν
φάρμακον. ἄλλοτὲ τ' ἄλλος ἔχει τάδε· νῦν μὲν ἐς ἡμέας
ἐτράπεθ', αἱματόεν δ' ἔλκος ἀναστένομεν,
ἔξαύτις δ' ἐτέρους ἐπαμείψεται. ἀλλὰ τάχιστα
τλήτε γυναικεῖον πένθος ἀπωσάμενοι. 10

(7 D)

Perikles, hiletak jotzen norbait ari den bitartean, ez alaitasunaz gozatuko da bera, ez hiria. Hala-koak itsaso durunditsuaren uhinek garbitu zituzten. Hagatik min dugu gure barneetan. Jainkoez, baina, itzuri ezinezko kalteentzat osakaia eman zizuten, adiskide, adorea eta eramapena. Batean bata, bestean bestea dagoke horrela; orain, aldiz, guri suertatu zaigu eta gure zauriaren odolari negar dago. Laster beste batzu joko ditu. Eutsi gogor, bertotik andreen negarra alde batera utzita.

Πάντα Τύχη καὶ Μοῖρα, Περικλέες, ἀνδρὶ δίδωσιν.

(8 D)

Halabeharrak eta Patuak, Perikles, gizonei dena ematen.

Αἰσιμίδη, δήμου μὲν ἐπίρρησιμῷ μελεδαίνων
οὐδεὶς ἂν μάλα πόλλ' ἱμερόεντα πάθοι.

(9 D)

Jendearen esamesez arduratzen denak ez duke atsegin handirik luzaroan.

οὔτε τι γὰρ κλαίων ἰήσομαι οὔτε κάκιον
θήσω τερπωλὰς καὶ θαλίας ἐφέπων.

(10 D)

Ene mina ez dut sendatuko negarrez,ez areagotuko atsegin eta jaien bidez.

Γλαῦκ', ἐπίκουρος ἀνὴρ τόσσον φίλος, ἔσκε μάχηται.

(13 D)

Glauko,gizon mertzenaria gudaketan ari den bitartean adiskidea dateke.

πάντα πόνος τεύχει θνητοῖς μελέτη τε βροτεΐη.

(14 D)

Gizonei dena dakarkiete lanak eta giza-ardurak.

Τοῖς θεοῖς ἦτ' εἰθεῖ' ἅπαντ' ἀπ' ἀντὶ πολλὰκις μὲν ἐκ κακῶν ἀνδρας ὀρθοῦσιν μελαίνῃ κειμένους ἐπὶ χθονί, πολλὰκις δ' ἀνατρέπουσι καὶ μάλ' εὖ βεβηκότας ὑπτίους κ(λ)ίνουσ' ἔπειτα πολλὰ γίγνεται κακά καὶ βίου χρήμη πλανᾶται καὶ νόου παρήγορος. 5

(58 D)

Jarri uste osoa jainkoengan;askotan lur ilunean dauntzan gizonak gaitzetik ateratzen dituzte;beste askotan ongi zeudenak eraso egiten dituzte,ahoz gora eraitsirik.Orduan kalte handiak gertatzen zaizkio gizonari eta alderrai dabil,bizi-nahi eta gogorik ezaz.

Οὐ τις αἰδοῖος μετ' ἀστῶν <οὐδὲ> περίφημος θανῶν γίγνεται· χάριν δὲ μᾶλλον τοῦ ζοοῦ διώκομεν <οἱ> ζοοί· κάκιστα δ' αἰεὶ τῶι θανόντι γίγνεται.

(64 D)

Hilez gero inor ez da agurgarri,ez entzutetsu,auzakideen artean;bizirik garenean bizien onspena bilatu ohi dugu.Hildakoari beti txarrena gertatzen zaio.

οὐ γὰρ ἐσθλὰ κατθανοῦσι κερτομεῖν ἐπ' ἀνδράσιν.

(65 D)

Ez da gizon leialarena hil direnak iraintzea.

Θυμέ, θυμ' ἀμηχάνοισι κήδεσιν κυκώμενε, τ'ἀνάδυσ', δυσμενῶν δ' ἀλέξει προσβαλῶν ἔναντιον στέρνον, τ'έν δοκοῖσιν ἐχθρῶντ' πλησίον κατασταθεῖς ἀσφαλέως· καὶ μήτε νικῶν ἀμφάδην ἀγάλλεο μηδὲ νικηθεῖς ἐν οἴκῳ καταπεσῶν ὀδύρεο. ἀλλὰ χαρτοῖσιν τε χαῖρε καὶ κακοῖσιν ἀσχάλα μὴ λην· γίγνωσκε δ' οἶος ῥυσμὸς ἀνθρώποις ἔχει.

(67a D)

Ene gogoa, tristura latzez larriturik, ekin aurrez etsaiari. Eman arpegi sendoro aurkakoei. Garaile ateraz gero ez zaitez harro agerian, garaitua izan ez gero ez negarrik egin etxean lur jota. Atsegin ezbeharretan ez poztu edo mindu larregi. Badakizu nolako gorabeherak dituen gizonak.

Τοῖος ἀνθρώποισι θυμός, Γλαῦκε, Λεπτίνεω πάι,
γίγνεται θνητοῖσ', ὀκοῖην Ζεὺς ἐφ' ἡμέρην ἄγηι,
καὶ φρονεῦσι τοῖ, ὀκοῖοισ' ἐγκυρέωσιν ἔργμασιν.

(68 D)

Glauko, Leptineo-ren seme hori, eguneango gogoa nolako eman Zeus-ek eta halakoxea ohi dute gizonek, aldartea, berriz, nolako lanbidetan dabilizan.

ΥΜΝΟΣ ΕΙΣ ΗΡΑΚΛΕΑ ΚΑΙ ΙΟΛΑΟΝ

Τήνελλα
ὦ καλλίνικε χαῖρ' ἄναξ Ἡράκλεες,
τήνελλα καλλίνικε
αὐτός τε καὶ Ἴολαος, αἰχμητὰ δύο.
τήνελλα
ὦ καλλίνικε χαῖρ' ἄναξ Ἡράκλεες.

(120 D)

Herakles eta Iolao-ri Himnoa

Gora, garaile goren hori!
Agur Herkules buruzagi;
gora garaile handi bioi,
zeu eta Iolao gudariei.
Gora garaile bikainari,
agur Herkules buruari!

SEMONIDES
(630 K.a.)

*Olerki luze bi ditugu bereak:batean bizitzare-
kiko ezkorra;bestean andreen ala agertzen zaigu.*

ᾠ παῖ, τέλος μὲν Ζεὺς ἔχει βαρύκτυπος
πάντων ὅσ' ἐστὶ καὶ τίθησ' ὅκηι θέλει.
νόος δ' οὐκ ἐπ' ἀνθρώποισιν· ἀλλ' ἐφήμεροι
ἄ δὴ βοτὰ ζῶομεν οὐδὲν εἰδότες,
ὅκως ἕκαστον ἐκτελευτήσει θεός.

... ..

οὕτω κακῶν ἅπ' οὐδέν· ἀλλὰ μυρία
βροτοῖσι κῆρες κἀνεπίφραστοι δῦαι
καὶ πῆματ' ἐστίν.

(1 D)

Diren guztien azken muga,ene lagun,Zeus burrunba-
riak jartzen du eta gogoko duen lekuan kokatzen.
Gizonek ez dute zentzunik erakusten;aitzitik,iga-
rokorak izan eta abereen antzo bizi gara,jainko-
ak bakoitzari emango dion azkena ikusteko arras
itsuturik...

Ez dago ezer txarrik gabekorik.Gizonek milaka zo-
ritzar,ezbehar ustegabekoak eta nahigabeak jasan
behar izaten dituzte.

τοῦ μὲν θανόντος οὐκ ἂν ἐνθυμοίμεθα,
εἴ τι φρονοῖμεν, πλεῖον ἡμέρης μιῆς.

(2 D)

*Zentzunez jokatuz gero hildakoagatik ez ginateke
arduratuko egun batez baino gehiago.*

πολλὸς γὰρ ἡμῖν ἐστι τεθνάναι χρόνος,
ζῶομεν δ' ἀριθμῶι παῦρα <παγ>κάκως ἔτεα.

(3 D)

*Hilik gauden aldia luzea;hala ere urte banaka ba-
tzu bizi ditugu hala hola.*



πάμπαν δ' ἄμωμος οὐ τις οὐδ' ἀκήριος.

(4 D)

Ez dago inor bat ere akatsik edo hutsik ez duenik

τοίας γυναῖκας ἀνδράσιν χαρίζεται
Ζεὺς τὰς ἀρίστας καὶ πολυφραδεστάτας·
τὰ δ' ἄλλα φύλα ταῦτα μηχανῆι Διός
ἔστιν τε πῆμα, καὶ παρ' ἀνδράσιν μένει.
Ζεὺς γὰρ μέγιστον τοῦτ' ἐποίησεν κακόν,

(7 D)



Aipatu olerkarrien JAIO TERRIAK
edo BIZI-LEKBUAK:

- | | |
|-------------|------------|
| 1: Himera | 2: Keos |
| 3: Kolophon | 4: Milieto |
| 5: Mitelene | 6: Naxos |
| 7: Paros | 8: Thasos |

Hauetxek dira Zeus-ek gizonei emandako emakumerik onenak eta zuhurrenak. Beste enparauak, Zeus-ek hala nahita, oinaze bat dira eta dirateke gizonentzat.

Hauxe da eta Zeus-ek eginiko okerrik handiena.

Ἐν δὲ τὸ κάλλιστον Χίος ἔειπεν ἀνὴρ·
οἷη περ φύλλων γενεή, τοίη δὲ καὶ ἀνδρῶν.

... ..

θνητῶν δ' ὄφρα τις ἀνθος ἔχη πολυήρατον ἴβης,
κοῦφον ἔχων θυμὸν πόλλ' ἀτέλεστα νοεῖ·

... ..

νήπιοι, οἷς ταύτη κεῖται νόος, οὐ δὲ ἴσασιν,
ὥς χρόνος ἔσθ' ἥβης καὶ βίотου ὀλίγος
θνητοῖς·

... ..

(29 D)

Ederki esan zuen Kiostarrak: orriak nola erne ohi diren, halaxe gizonak ere...

Gizonak gaztetasan maitagarriaren kemena duen bitartean, gogoz azkar, bete ezinezko amets asko dagi...

Holako gogoetan dihardutenak buru gitxikoak, ez bait dira ohartzen gaztaroa laburra eta gizonen bizitzako epea txikia dela...

ALKMAN
(630 K.a.)

Kultorako andrazkoen taldeentzako kantuak ondu zituen (Partheniak ziren emakume-taldeok). Bere olerkirik ederrena, baina, "Gau Abestia" zoragarria dela esan liteke.

ὁ δ' ὄλβιος, ὅστις εὐφρων
ἀμέραν [δι]απλέκει
ἄκλαυτος·

(1 P)

Zoriontsua, eguna oinazerik gabe eho dezana.

Μώσαι Ὀλ]υμπιάδες, περὶ με φρένας
ἰμέρωι νέα]ς ἀοιδᾶς
πίμπλατ' ἰθύ]ω δ' ἀκούσαι
παρθενῆ]ας ὀπός
πρὸς αἰ]θέρα καλὸν ὑμνιοισᾶν μέλος

(3 P)

Olinpo-ko Musak, bete, arren, nire gogoa abesti berri-
rriz; neskatilak entzun gura ditut zeru aldera er-
esi ezitia zuzentzen.

οὐ μ' ἔτι, παρσενικαὶ μελιγάρυες ἰαρόφωνοι,
 γυῖα φέρην δύναται· βάλε δὴ βάλε κηρύλος εἶην,
 ὅς τ' ἐπὶ κύματος ἄνθος ἄμ' ἀλκυόνεσσι ποτῆται
 νηδεὲς ἦτορ ἔχων, ἀλιπόρφυρος ἰαρὸς ὄρνις.

(26 P)

Ahots ezti-maitagarridun neskatxak,nire belaunak
 honez gero ez dira gauza ni eramateko.Ai,hegaztia
 banintz,txori sakratu-purpuraduna,urtxoriekin ba-
 tera kresal-gain hegaz joateko!

Μῶσ', ἄγε, Καλλιόπα, θύγατερ Διός,
 ἄρχ' ἐρατῶν ἐπέων, ἐπὶ δ' ἱμερον
 ὕμνῳ καὶ χαρίεντα τίθη χορόν.

(27 P)

Ea,bada,Musa Kalliope,Zeus-en alaba hori!Esan hitz
 ederrak eta ezar abestietan mina eta dantzan ats-
 egina.

Ἄφροδίτα μὲν οὐκ ἔστι, μάργος δ' "Ἔρως οἷα παῖς)
 [παῖσδει,
 ἄκρ' ἐπ' ἄνθη καθαίνων, ἃ μὴ μοι θίγῃς, τῷ κυπαι-
 [ρίσκῳ.

(58 P)

Aphrodita ez dago eta Eros buruberoa jolasean ari
 da lore-garaian,otol,ez uki,lentzia-gainean koka-
 turik.

"Ἔρως με δηῦτε Κύπριδος ἑκατι
 γλυκὺς κατεῖβων καρδίαν λαίνει.

(59a P)

Berriz ere Eros gozoa,Kipris-en gurariz nire bi-
 hotza betetzen eta samurtzen.

εὐδουσιν δ' ὄρέων
 κορυφαί τε καὶ φάραγγες,
 πρῶνές τε καὶ χαράδραι
 ὕλα τ' ἔρπετά τ' ὄσσα
 τρέφει μέλαινα γαῖα,
 θῆρές τ' ὄρεσκῶιοι
 καὶ γένος μελισσῶν
 καὶ κνώδαλ' ἐν βένθεσσι πορφυρέας ἀλόγ'
 εὐδουσιν δ' οἰωνῶν
 φύλα ταυπτερύγων.

(89 P)

Lo dauntza mendi-gailurrak eta amildegiak,muino
 eta trokartekak,basoa eta lur nabarrak bizierazten
 dituen animaliak oro,basapiztiak eta erle-piloak
 eta itsaso distiratsuaren leizeetako dragoia.Lo
 hego luzedun hegazti harrapari mota guztietakoak.

Ῥίπας, ὄρος ἀνθέον ὕλαι,
 νυκτός μελαίνας στέρνον

(90 P)

^ Ripas,basoz estalitako mendia,gau beltzaren bularra.

ESTESIKORO
 (590 K.a.)

Himera-ko semea,koru-abestien egilea. Eskilo-k baino arinago Orestiada izeneko poema liburu bi egin zituen.

Μοῖσα, σὺ μὲν πολέμους ἀπωσαμένα, μετ' ἐμοῦ
 κλείοισα θεῶν τε γάμους ἀνδρῶν τε δαίτας
 καὶ θαλίας μακάρων

(33 P)

Musa,guduak alde batera utz eta ospa itzazu,enek-in batera,jainkoen eztaiak,gizonen oturuntzak eta zorioneko jaialdiak.

ἀτελέστατα γὰρ καὶ ἀμάχανα τοὺς θανόντας
 κλαίειν

(67 P)

Ez du zentzunik eta alferrekoa da hildakoei buruz negarrez aritzea.

θανόντος ἀνδρὸς πᾶσ' ἀπώλ(ετ') ἃ ποτ' ἀνθρώπων
[χάρις.

(68 P)

Gizona hil zedin,gizonengandiko begiramena desegin.

IBIKO
(540 K.a.)

Epheboen maitasuna,dorioen artean hedatua,ospatu zuen bereziki.Izadia ere ederki kantatuzuen.

ἦρι μὲν αἶ τε Κυδώνιαι
μηλίδες ἀρδόμεναι ῥοᾶν
ἐκ ποταμῶν, ἵνα Παρθένων
κῆπος ἀκήρατος, αἶ τ' οἴνανθίδες
αὐξόμεναι σκιεροῖσιν ὑφ' ἔρνεσιν
οἴναρέοις θαλέθοισιν· ἔμοι δ' ἔρος
οὐδεμίαν κατάκοιτος ὥραν·
<ἀλλ' ἄθ'> ὑπὸ στεροπᾶς φλέγων
Θρηίκιος Βορέας
ἀίσσων παρὰ Κύπριδος ἀζαλέ-
αις μανίαισιν ἐρεμνὸς ἀθαμβῆς
ἐγκρατέως πεδόθεν τινάσσει
ἡμετέρας φρένας.

(5 P)

Udaberrian irasagarrak,erreketako urez bustiak, heltzear dira Birjinen baratze zapalgabeen. Mahats-aihen itzaltsuen artean ernemuinak leher-tzear daude,haunditurik. Bitartean Eros-ek nirekin ez du atsedeen aldirik. Aitzitik,Trazia-ko at-haizea oineztarriak bizturik bezala,Kipris-engandik urrundurik,zoraldi batzear,lehor eta ilun,bat ere ikararik gabe eta sendoro barne-barnean iharrausten dit anima.

Ἔρος αὐτέ με κυανέοισιν ὑπὸ
 βλεφάροις τακέρ' ὄμμασι δερκόμενος
 κηλήμασι παντοδαποῖς ἐς ἄπει-
 ρα δίκτυα Κύπριδος ἐσβάλλει·
 ἢ μὲν τρομέω νιν ἐπερχόμενον,
 ὥστε φερέζυγος ἵππος ἀεθλοφόρος ποτὶ γήραι
 ἄεκων σὺν ὄχεσφι θοοῖς ἐς ἄμιλλαν ἔβα.

(6 P)

Berriro Eros:betazal urdin-ilunen azpitik begi
 motelez begiraturuz, askotariko liluragarriz, Kipris-
 en sare zarratura bultzatzen nau.
 Hurbiltzen zaidanean ikaraz nago benetan: gurdi-
 zaldi sari-irabazlea bezalaxe, zahartzean, gogoz
 kontra berriro gurdi azkarrekin lehiaketetan ibi-
 iltzeko eramana denean.

δέδοικα μή τι πὰρ θεοῖς
 ἀμβλακῶν τιμὰν πρὸς ἀνθρώπων ἀμείψω.

(29 P)

Beldur naiz jainkoekiko huts eginez lortuko ote
 dudan gizonen oneritzia.

οὐκ ἔστιν ἀποφθιμένοις ζωᾶς ἔτι φάρμακον εὐρεῖν.

(32 P)

Hildakoei bizia erakar diezaikeen osakairik ar-
 kitzerik ez dago.

φλεγέθων αἵπερ διὰ νύκτα μακρὰν
 σείρια παμφανόωντα

(33 P)

Gau beltzean dizdizka ari diren izarrak antzo su-
 tan.

SIMONIDES
(556-468 K.a.)

Zeos uhartekoa, olerki moeta askotan nagusi, batzutan errazenera lerratzen da. Aginduzko bertsoak ere sarri egiten zituen, ondo ordainduta. Horregatik Pindaro-k "zilarrezko arpegia" deitzen zion. Olerkia pintura mintzatua eta pintura olerki isila dela esan omen zuen.

πίνε πίν' ἐπὶ συμφοραῖς.

(7 P)

Edan, edan zorion aldian!

ἀνθρώπων ὀλίγον μὲν
κάρτος, ἀπρακτοὶ δὲ μεληδόνες,
αἰῶνι δ' ἐν παύρῳ πόνος ἀμφὶ πόνῳ·
ὁ δ' ἀφυκτος ὁμῶς ἐπικρέμαται θάνατος·
κείνου γὰρ ἴσον λάχον μέρος οἱ τ' ἀγαθοὶ
ὅστις τε κακός.

(15 P)

Giza-indarra ezereza da eta ahaleginak alferrak; epe laburrean nekea nekearen gain. Edonon heriotza itzuri-ezinaren mehatxua. Hil-beharra berdin berdinekin dute onek eta gaiztoek.

ἄνθρωπος ἔων μή ποτε φάσις ὃ τι γίνεται [[αὔριον]],
μηδ' ἄνδρα ἰδῶν ὄλβιον ὄσσον χρόνον ἔσσειται·
ὠκεία γὰρ οὐδὲ ταυπτερύγου μυίας
οὕτως ἅ μεταστάσις.

(16 P)

Gizona izanik ez esan inoiz biharamunean zer gertatu behar den; ezta gizon zoriontsua ikusita noiz arte izango den ere. Hegoak zabalduz euliak egiten duten hegazkada ez da giza-aldakuntza bezain arina.

ὁ δ' αὖ θάνατος κίχεν καὶ τὸν φυγόμαχον.

(19 P)

Burrukari ihes egiten diona ere harrapatzen daki heriotzak.

οὔτις ἄνευ θεῶν
ἀρετὰν λάβεν, οὐ πόλις, οὐ βροτός·
θεὸς δ' ἀμμητις ἀπή-
μαντον οὐδὲν ἔστιν θνατοῖς.

(21 P)

Jainkoen laguntzarik gabe inork ez du lortzen ezer onik, ez herriak ez gizonek. Jainkoa oro-igarle. Zorion beterik ez dago gizonentzat.

οὐκ ἔστιν κακὸν
ἀνεπιδόκητον ἀνθρώποις· ὀλίγωι δὲ χρόνωι
πάντα μεταρρίπτει θεός.

(22 P)

Gizonentzat ez dago ustegabeko gaitzik.Epe labur-
rean dena aldarazten daki jainkoak.

τό τ]ε καλὸν κρίνει τό τ' αἰσχροὺν· εἰ δέ
...κ]ακαγορεῖ τις ἄθυρον [σ]τόμα
περι]φέρ[ω]ν, ὁ μὲν καπνὸς ἀτελής, ὁ δέ[
χρυ]σὸς οὐ μιάινετ[α]ι,
ἀ δ'] ἀλάθε[ι]α παγκρατής,
ἀλλ'] ὀλίγοις ἀρετὰν ἔδωκεν θ[εός
ἐς τ]έλος· οὐ γὰρ ἔλαφρον ἔσθλ[ὸν] ἔμμεναι·
ἦ γ]ὰρ ἀέκοντά νιν βιάται
κέρ]δος ἀμάχητον ἢ δολοπλ[όκου
με]γασθενῆς οἴστρος Ἄφροδίτ[ας
ἐρ]ιθαλοῖ τε φιλονικίαι.
ᾧ δ]ὲ μὴ δι' αἰῶνος ὄσιαν
πάρεστι]θεῖν κέλευθον,
ἀλλ' ἀγαθ]ὸς ἐς τὸ δυνατόν.[

(36 P)

On-gaizkiak bereizten daki.Eta mihi luzeak esame-
sak zabaltzen dituenean:kea ezereza da,urreea ez
da lohitzen,egia ororen gain gelditzen da.Eta oso
gitxiri eman die jainkoak azkenerainoko sendotas-
una.Ez bait da txantxetako gauza ona izatea.Nahi
ez duena ere menderatzen du gutizia gaindituezi-
nak edo Aphrodita-ren ezten gogorak edo eta bu-
rrukarako gogo biziak.Beraz,bizitza guztian onbi-
detik ezin duena izan dadila zuzena ahal bestean.

ἄνδρ' ἀγαθὸν μὲν ἀλαθέως γενέσθαι
χαλεπὸν χερσίν τε καὶ ποσὶ καὶ νόωι
τετράγωνον ἀνευ ψόγου τετυγμένον·

(37 P)

Akatsik gabeko gizona,ondo hornidua eta benetan
ona izatea,eskuz,oinez eta gogoz goitik beherakoa
izatea,benetan gauza zaila.

ἔστί τις λόγος
τὰν Ἀρετὰν ναίειν δυσαμβάτοισ' ἐπὶ πέτραις.
ἦνῦν δὲ μιν θοαντὶ χῶρον ἀγνὸν ἀμφέπειν·
οὐδὲ πάντων βλεφάροισι θνατῶν
ἔσοπτος, ᾧ μὴ δακέθυμος ἰδρῶς
ἔνδοθεν μόληι,
ἴκηι τ' ἐς ἄκρον ἀνδρείας.

(74 P)

Ipuin bat dago:Ontasuna harkaitz igoezinetan bizi dela;neskatxen talde doneak inguraturik omen.Ez da gizon ororentzat ikusgai;aitzitik barrutik iz-erdi erretzailea dariona eta kemenaren kemenéz a-ri dena soilik heltzen da bertara.

χαλκή παρθένος εἰμι, Μίδεω δ' ἐπὶ σήματι κεῖμαι / ἔστ' ἄν ὕδωρ τε νάηι καὶ δένδρεα μακρὰ τεθήληι, / ἥλιος δ' ἄνιων λάμπηι λαμπρά τε σελήνη, / καὶ ποταμοὶ γε ῥέω-σιν, ἀνακλύζηι δὲ θάλασσα, / αὐτοῦ τῆιδε μένουσα πολυ-κλαύτωι ἐπὶ τύμβωι / ἀγγελέω παριοῦσι Μίδας ὅτι τῆιδε τέθαπται.

(74 P)

Brontzezko neskata nauzue,Midas-en hilobian etz-anik.Ura jarionga,zuhaitz garaiak hazten,eguzki distiratsua sortzen,ilargia argitzen,ibaiak isur-tzen eta itsasoa olatuz irakitzen diren bitartean hementxe nagoke,hilobi negarrezko hontan, Midas berton datzala bidaztiei iragarritz.

ἔστι καὶ σιγᾶς ἀκίνδυνον γέρας.

(77 P)

Isiltasunak ere badu arrisku gabeko saririk.

τίς γάρ ἄδονᾶς ἄτερ θνα-
τῶν βίος ποθεινός ἢ ποί-
α τυρανίς;
τᾶσδ' ἄτερ οὐδὲ θεῶν ζηλωτὸς αἰών.

(79 P)

Atseginik ez balitz,giza-bizitza edo indarra bera ere nola liteke gogozkoa?Hori gabe jainkoen bizi-tza bera ere ez litzaiguke gutiziagarri.

ἐν ἀνάγκαις γλυκὺ γίνεται καὶ τὸ σκληρόν.

(85 P)

Beharrizanean mingotsa ere gozo ohi da.

τὸ δοκεῖν καὶ τὰν ἀλάθειαν βιάται.

(93 P)

Itxurak egiari ere eragiten dio.

ἄγγελε κλυτὰ
ἔαρος ἀδυόδμου
κυανέα χελιδοῖ

(92 P)

Udaberriaren geznari zalapartaria,usai gozoduna,
enara beltza!

τὸ γὰρ γεγενημένον οὐκ ἔστ' ἄρεκτον ἔσται.

(98 P)

Gertatua ez daiteke gertatu gabekotzat jo.

μόνος ἄλιος ἐν οὐρανῶι

(100 P)

Ortzean eguzkia bakarrik.

ALZEO
(600.inguruan K.a.)

Mitelene-koa;bere sorterriko barne eta kanpoko burruketan parte hartu zuen.Estatuaren irudia den itsasontziaren abestia,gero hainbeste erabilia, horien lekuko da.Garai hartako ekonomiazko gorabeheren erakusgarritzat ere badugu bere bertsoen bat.Bestalde,kezkak eta ardurak uxatzeko su-ondoko atsedenaldi eta edanaldia bezalakorik ez dago.

ἀσυννέτημι τῶν ἀνέμων στάσιν·
τὸ μὲν γὰρ ἔνθεν κῦμα κυλίνδεται,
τὸ δ' ἔνθεν, ἄμμες δ' ὄν τὸ μέσσον
νᾶϊ φορήμμεθα σὺν μελαίνοι

(326, 208, LP)

Ezin diot igarri haizeen norabideari.Olatuak, batean hemendik,bestean handik,pirilika;gu, berriz,erdian,itsasontzi beltzean eramanak.

τόδ' αὖτε κῦμα τῷ προτέρῳ ἴνέμῳ
στείχει, παρέξει δ' ἄμμι πόνον πόλυν
ἀντλην, ἐπεὶ κε νᾶος ἔμβαι

... ..

καὶ μὴ καταισχύνωμεν [ἀνανδρῖαι
ἔσλοισ τὸκῆας γᾶς ὕπα κε[ιμένοις

(6 LP)

Badator olatua,lehengoaren antzekoa;lanak izango ditugu txikitzen,behin ontziraturuz gero...

... ..
Gizontasunik ezaz ez ditzagula lotsatu gure guraso zintzoak,lurpean dauntzanak.

νῦν χρῆ μεθύσθην καὶ τινα πέρ βίαν
πῶνῃν, ἐπεὶ δὴ κάτθανε Μύρσιλος.

(322, L-P)

Oraintxe behar da mozkortu akitu arte edanez,Mir-silo hila dugu eta.

πῶνωμεν· τί τὰ λύχν' ὀμμένομεν; δάκτυλος ἄμερα.
κάδ δ᾽ἔερρε κυλίχναις μεγάλαις φαίτατ ποικίλαις 2

οἶνον γὰρ Σεμέλας καὶ Δίος υἱος λαθικάδεον
ἀνθρώποισιν ἔδωκ'. ἔγχεε κέρναις ἕνα καὶ δύο 4

πλήαις κάκ κεφάλας, ἃ δ' ἄτέρα τὰν ἄτέρα κύλιξ
ὠθήτω 6

(346, L-P)

Edan dezagun.Zertarako egon argi-ontzien zain?Hatzamar bat bestekoa da eguna.Atera ardoa kopa handi-margodunetan,Semele eta Zeus-en semeak gizon-ei ardoa eman bait zien ahaztuteko.Bota gonburur-aino,neurri bat ur eta bi ardo,eta kopa batek hur-rengo dakarrela.

οὐ χρῆ κάκοισι θῦμον ἐπιτρέπην·
προκόψομεν γὰρ οὐδέν ἄσάμενοι,
ὦ Βύκχι, φαρμάκων δ' ἄριστον
οἶνον ἐνεικαμένοις μεθύσθην.

(335, L-P)

Ez da komeni gogoia zoritxarraren menpe uztea,ez dugu ezer aurreratzen suminduz.Bikis hori,osakairik onena ardoa ekarri eta mozkortzea.

κάββαλλε τὸν χεῖμων', ἐπὶ μὲν τίθεις
πῦρ, ἐν δὲ κέρναις οἶνον ἀφειδέως
μέλιχρον, αὐτὰρ ἀμφὶ κόρσαι
μόλθακον ἀμφι<βάλων> γνόφαλλον.

(338, L-P)

Utz alde batera ekaitza,ipini sutan egurra,ardo eztitsua bota edontzietan ardura gabe eta ondoren etzan zaitez,lokietan bururdi bigun bana.



SAPHO eta ALZEO

ὥς γὰρ δὴ ποτ' Ἀριστόδα-
μον φαῖο' οὐκ ἀπάλαμνον ἐν Σπάρται λόγον
εἶπην' χρήματ' ἄνηρ, πένι-
χρος δ' οὐδ' εἰς πέλετ' ἔσλος οὐδέ τιμιος.

(360, L-P)

Aristodemo-k behin Esparta-n berba bat ere ergela
jalki omen zuen:Gizona sosa da;landerra inori ez
zaio zintzo-itzaitsua.

οἶνος δὲ φίλε παῖ καὶ ἀλάθεια

(366, L-P)

Ardoa,laguntxo,eta egiak!

AIPATU OLERKARIEN

<u>izenak</u>	<u>orrialdeak</u>
ALKMAN.....	29
ALZEO.....	45
ARKILOKO.....	18
ESTESIKORO.....	33
IBIKO.....	35
MIMNERMO.....	9
SEMONIDES.....	24
SIMONIDES.....	38
SOLON.....	12
TIRTEO.....	8
XENOPHANES.....	16

AIPATU PERTSONEN ETA LEKUEN

<u>izenak</u>	<u>orrialdeak</u>
Aristodemo.....	49
Aphrodita.....	30-41
Bikis.....	47
Esparta.....	49
Eskilo.....	33
Eros.....	30-31-35-36
Glauko.....	20-22
Herakles.....	23
Iolao.....	23
Jupiter.....	18
Kaliope(Poesi epikoaren Musa).....	30
Kiostarra.....	28
Kipris(Txipre-ko jainkosa;Aphroditaren goitizena).....	31-35-36
Leptineo.....	22
Midas.....	42
Mirsilo.....	46
Musak.....	30-33
Olinpo.....	29
Orestiada.....	33
Perikles.....	19
Pindaro.....	12-38
Ripas.....	32

Semele.....46
Titon.....11
Trazia.....35
Zeus.....10-11-22-24-28-30-46